

Motxiladun umeak

*espetxe politika honen
ondorio ikusezina*



Gurasoekin hazteko eskubidearen alde

BUTRA SOEN
ONDOAN BIZI
NATI DUT

Gurasoekin hazteko eskubidearen alde





HELBURUAK:

..... 6

HAUR-NERABEEN EGOERAREN ARGAZKIA

..... 8

ESPETXEAN IZATEAK UMEEN BIZITZAN ETA GARAPENEAN DITUEN ONDORIOAK

..... 22

AMAREKIN ESPETXEAN BIZI DIREN HAURRAK

..... 32

ONDORIOAK

..... 50

HELBURUAK

GUERASOEN
ONDOAN BIZI
NAHIDUT

Txosten honen xedea orain arte ezkutaturik egon den komunitate bat ikusgarri egi-
tea da: gurasoak espetxean dituzten haur eta nerabeena, hain zuzen ere. Gainera,
aztergai dugun komunitate honek baditu berezitasun batzuk: euren gurasoei kar-
telaz gain zama erantsia ezartzen diete; salbuespenezko 7/2003 legedia. Horrek
euren arteko harremana gurasoa espetxean duten gainontzeko haur/nerabeena
baino gehiago zailtzen du.

Era berean, haur eta nerabe hauek gurasoak aske eta etxean ikusteko zailtasun
handiagoa dute. Izan ere, oso kondena luzeak dituzte oro har, 20, 30 eta 40 urtee-
takoak. Eta, hori gutxi balitz, zigorrak oso-osorik, espetxe onurarik gabe betetzeko
ez ohiko legedia ezartzen zaie, beste edozein guraso presori ez bezala.

Nola bizi dute haur eta nerabeek gurasoak espetxean izatea? Eta, nola bizi dute
euren gurasoek zigorra ez ohiko baldintzetan betetzea? Nola egiten diete aurre
gurasoei ezarritako 10, 20, 30 edo 40 urtetako zigorrei? Txosten honetan gurasoak
ez ohiko espetxe politikaren baitan espetxean izateak, 0-18 urte arteko haur eta
nerabeen bizitzan eta garapenean nola eragiten duen aztertuko dugu.

MOTXILADUN

HAUR-NERABEEN

EGOERAREN ARGAZKIA


BUENA SUEN
ONDOAN BIZI
Nahi dut

EZAUGARRIAK

Ikergai dugun kolektiboari dagozkion ezaugarriak hurrengoak dira:

1. 18 urte arteko 113 umek dute aita, ama edo biak espetxean

Guraso bat edo biak kartzelan dituzten adin txikiko haurren zifra 113koa da. Horietatik 3 haur amarekin batera daude preso; 9k aita eta ama dituzte preso; 6k ama dute preso, eta 95ek aita dute preso.



3 haur preso kartzelan: Xua eta Haitz Picassenten; Izar Alcobendasen


9 hurrek bi gurasoak preso.

6 hurrek ama dute preso.

95 hurrek aita dute preso.

2. 97 dira aita edo ama diren presoak. Horietatik batzuk seme-alaba 1 dute; beste batzuk 2 seme alaba.

3. 113 haur-nerabeen adinak



Taldearen datu estatistikoek diotenez, 113 haurretatik, 9k bi gurasoak dituzte espetxean eta familia zabalarekin bizi dira, 6 euren amaren presentziarik gabe bizi dira eta 95 aitaren figurarik gabe hazi dira. Gainera, azpimarratu nahi dugu une honetan 3 haur bizi direla euren amekin: Picassenteko kartzelan Xua eta Haitz; Alcobendasko pisuan Izar. Adin tarteei dagokionez, homogeneouski banatzen dira haurtzaroko adin-tarte ezberdinetan zein nerabezaro goiztiar eta nerabezaroan.

Gaur egun 18 urtetik gora dituzten presoek seme-alaba asko gurasorik gabe hazi dira. Azken hilabeteko gertaera lasgarriak, aski ezaguna egin du Peru Del Hoyo

Sanchez gaztearen kasua, eta berak egindako kontakizuna. Peruk azaldu zuen moduan, berak urte t' erdi zuela atxilo hartu zuten aita; ez du, beraz, aita aske eta kalean ikusi izanaren oroitzapenik. Hori gutxi balitz, 19 urte luzez egin ahal izan dituen bisita guztiak batuta 15 bat egunez baino ez da egon aurrez aurre bere aitarekin. Alabaina, munduari hogeitik gora bira eman dizkio Euskal Herritik Espainiako espetxetara egindako kilometro kopurua kontuan hartuta. (Iturria: Sarek 2017-08-08 eskainitako agerraldia)

Asko dira haurtzaroa bidaiatzen eta euren gurasoen hutsunearekin hazi eta, dagoeneko nagusi diren gazteak. Beraiek berriki esandako hitzak dira: “haurtzaroa lapurtu digute” eta “umezurtz utzi nahi gaituzte”. Hala ere, beraiek haurtzaroaren alde garrantzitsuak galdu dituztelako, ez dute nahi gaur egun egoera horretan bizi diren haur eta nerabeak egoera berberetik igarotzea, eta horretarako, soluzioak eskatu dituzte.

Dosier honek aztergai gaur egun gurasoak preso dituzten 0-18 urte arteko haur eta nerabeen errealitatea badu ere, azken 40 urteotan motxiladun ume izan direnak eta dagoeneko nagusitu diren gazte horien guztien aipamena egitea beharrezkoa da.

ERREALITATEA

Komunikazioak. Zenbat denbora ematen duten gurasoekin eta zein baldintzatan.

Estatu frantziarreko bisita-erregimena asko aldatzen da presoa epaitua egon edo ez. Prebentiboentzako kartzeletako bisitak 30-45 minutukoak izaten dira. Espetxearen arabera, 2 edo 3 txanda egin daitezke jarraian. Bisitak espazio oso txikiko

lokutorioetan izaten dira gehienetan. Kartzelaren batean badago hurrekin bisita egiteko bisita-gela bereziren bat. Kasu hori, ordea, ez dago guztietan; eskaera berezia egin behar da gela hori erabili ahal izateko. Presoa epaitu ondoren kondenatuentzako espetxe batera mugitzen dute. Nahiz eta badagoen kondena osoa prebentiboentzakoan bete duenik ere. Kondenatuenetan, bisitak luzeagoak eta espazio hobean izaten dira orokorrean. Azken urteotan, zabaltzen ari dira Frantzia Bizitza Familiarrerako Unitateak izenez ezagunak diren bungalow modukoak. Lehena, 2003an ireki zuten. Horietan, presoek 6, 12, 48 eta 72 orduko bisitak izan ditzakete senideekin.

Estatu frantziarreko espetxe sistema duela berrehun urteko irizpide katolikoen arabera eraikita dago. Kartzela prebentiboetan presoek ez dute harreman intimorik izateko eskubiderik. Harrigarria bada ere, lege testuetan eta espetxeetako barne arautegietan ez da sexu hitza aipatu ere egiten, lizunkeria eta lotsa baizik. Lotsa eduki beharra azpimarratzen da. Hain zuzen, horretan oinarritzen da sexualitatearen debekua. Arkitekturak berak debekatzen du sexu harremana. Kartzela bakoi-tzeko errealitatea desberdina den arren, ez dago aurrez aurrekorik. Presoak eta bisitariak elkarrekin kristalik gabe egoteko aukera duten arren, gelaren bi aldeetan leihotxoak daude eta kartzelariak etengabe zelatatzen dituzte. Ezegokiak iruditzen zaizkien jarrerak sumatzean, sartu eta bisita eten dezakete. Presoa edota biko-tekidea maiz zigortu izan dituzte jarrera horiek izateagatik. Horrek ez du, ordea, gertatzen ez direnik esan nahi.

Hamarnaka dira debekuak gainditu eta prebentiboentzako espetxeetako lokutorio hotzei aurre eginda sortu diren umeak. Epailleak ume horiek kartzelan sortzea ezinezkoa zela argudiatu izan du behin baino gehiagotan, aitatasuna zalantzan jarri eta semearen edo alabaren bisita baimena ukatzeko.

Entzutetsua izan zen Iker Beristain Algortako preso ohiak bere aitatasuna aldarrikatzeko 2010 urtean egindako gose greba. Le Vert epaileak Beristainen aitatasuna zalantzan jarri eta bisitak ukatu zizkion alabari. Hiru hilabete itxaron behar izan zituen bere alaba ezagutzeko.

Telefono deiei dagokienean duela urte gutxi telefonoz deitzeko aukera eman zien administrazioak preso guztiei. Ordura arte kondenatuentzako espetxeetan zeuden preso kondenatuek soilik zuten telefonoz deitzeko eskubidea. Telefono dei hauek ez dute berez denbora mugarik, haatik, deiak presoak ordaindu behar ditu eta oso garestiak dira gehienek dei internazionala egin behar izaten dutelako euren etxeetara deitzeko.

Estatu espainiarrean presoak hilero aurrez aurreko familiar bat eta aurrez aurreko intimo bat izateko eskubidea du. Bisita horien iraupena espetxearen arabekoa bada ere, ordu batetik hiru ordu artekoak izaten dira normalean. Seme-alabak dituztenek elkarbizitza-komunikazioa egiteko aukera dute. Horiek hiru ordutik sei ordu artekoak izango direla dio espetxe-araudiak; bisita horiek seme-alabek 10 urte bete arte egin daitezkeela. Bereziki aipagarria da aitarekin edo amarekin denbora gehiagoz egoteko helburua duten aurrez aurreko hauek desagertzea umeak 11 urte dituenean. Are eta ulergaitzagoa da egoera, adin desberdinetako seme-alabak dituztenen kasuan. Horrelakoetan zaharrenak ezingo baitu horietara sartu eta, aldiz, gazteenak bai. Preso batek baino gehiagok uko egin dio horiek eskatzeari seme-alaba zaharrenak sartzerik ez zuelako.

Aipatutakoaren harira, Euskal Herriko Unibertsitateko Psikologia Fakultateko Fernando Olabarrieta eta Luixa Reizabal irakasleek txostena kaleratu zuten 2014ko martxoan. Honako ondorioak jasotzen ditu:

“Kartzelan dauden gurasoei ezarritako artikuluek eragotzi egiten diete haur eta nerabeei segurtasun emozionala asebetetzea, eta hori lehen mailako beharra da. Eragozpen horiek direla eta, areagotu egiten da garapenean arazoak izateko arriskua. Gainera, hurrek 10 urte betetzean, debekatuta dute elkarbizitza-komunikazioak edukitzea. Adin muga hori arbitrarioa da, ez du oinarri psikologikorik, ez behintzat bizitza-ziklo osoan barrena zientifikoki egiaztatutako psikologia-garapen prozesuarena. Bizitza-zikloa bizitzako lehenengo momentuetan hasten da, eta ez da nerabezaroaren amaieran ere bukatzen.”

Aurrez aurreko komunikazioez gain astero 40 minutuko bisita bat egin daiteke kristalak banatutako lokutorio batean. Ez dago inolako kontaktu fisikorik preso eta bisitarien artean eta komunikazioa interfono bidez egiten da.

Bestalde, 5 minutuko 8 dei egin ditzakete. Dei hauek aurrez baimendutako telefono zenbakietara egin ditzakete eta deia automatikoki mozten da 4 minutu eta 59 segundotara. Gainontzeko presoek 5 minutuko 10 dei egin ditzakete astean.

Aurrez aipatutako komunikazio era guztiak kontrolatuak izaten dira euskal presoen kasuan: deiak grabatuak, gutunak fotokopiatuak... Bisita espazioak ez dira kasu askotan haurrak jolasteko gune egokiak izaten, presoek eskulanak, jolasak egiteko materialerako muga handiak izaten dituzte maiz. Aipagarria da esaterako Fresnes espetxeko lokutorioen zikintasuna; Presondegien Nazioarteko Behatokiak salatu zuen espetxe horretako arratoien izurritea.


Adin txikikoen babeserako 1/1996ko urtarrilaren 15eko legearen arabera, adin txikikoaren familia harremanen mantentzea ahalbidetuko da. Hau hala izanik ere, gaur egun ez da aita-ama preso dituzten haur-nerabeek euren gurasoekin harremana garatzeko duten eskubidea ahalbidetzen. Hori erakusteko bi haurren

adibideak ekarriko ditugu orriotara; Aita Chateaux-ko espetxean duen 3 urteko haur batena eta ama Algeciras-eko kartzelan duen 12 urteko nerabearena. Chateaux-ko espetxean ostiraletan ordu beteko eta larunbatetan ordu beteko bi bisitaldi egin ditzakete presoek. 3 urteko haur hau hilean behin joaten da aita ikustera; beraz, hilean 3 orduz egoten da berarekin; guztira urtean egun t' erdi pasatzen dute elkarrekin fisikoki. Bidaia hori egiteko, berriz, 12 ordu pasa behar izaten ditu kotxean (6ordu joateko, 6 bueltatzeko). Urtean kotxeko bidaietan 144 ordu igaro behar izaten ditu; 6 egun urtean kotxean sartuta aitarekin egun t' erdiz egon ahal izateko.


Ama bisitatzera Algecirasera doan nerabeak hilean ordu t' erdiko aurrez aurreko bat izaten du amarekin. 2200 km egiten ditu hilero amarekin ordu t' erdiz egoteko; 20 orduko bidaia ordu t' erdirako. Urtean 240 ordu pasatzen ditu bidean, amarekin 18 ordu pasatzeko; 10 egun oso bidaian amarekin 18 ordu pasatzeko.

URRUNTASUNA

Gaur egun 97 euskal preso dira guraso. Horietatik 17 400km edo gutxira daude; 45 preso 400km eta 790km artean, eta 35 preso 800km eta 1000 km artean. Presoen %17,5a 400km-ra dago; %46,39a 400km-790km artean, eta %36,08a 800km-1100km artean.



18 urte arteko 110 haur-nerabe dira hilero gurasoak ikusteko bidaia egitera behartuta daudenak; 3 haur amarekin batera bizi dira espetxean. Horietatik 18 ume-nerabek 400km edo gutxiagoko bidaia egin behar izaten du; 49 haur-nerabek 400-790km artekoa, eta 43 ume-nerabek 800-1100km-ko bidaia. Haurren %16,36k 400km; %44,54k 400-790km, %39,09k 800-1100km.



Kilometro kopuru eta distantzien nolakotasuna ulertzen lagunduko digu honako adibide honek: Aita Murtzian duen 8urteko umeak dagoeneko ia 4 aldiz eman dio bira munduari bere aitarekin egoteko egin behar izan dituen km guztiak kontuan hartuta.

Gainera, badira ama eta aita espetxean dituzten haur-nerabeak ere; bereziki azpimarragarria da ama kartzela batean eta aita beste ezberdin batean izateagatik hilero bidaia bikoitzak egitera behartuta dauden, edo duela gutxira arte egon diren haurren egoera.



Lehen, euskal preso guztiak espetxe gutxi batzuetan zituztenean, senideek batera egiten zituzten bidaiak autobusean. Ohikoa izaten zen horietan haur asko elkar-atzea. Orain, aldiz, haur askok bidaia bakarrik egin behar izaten dute hainbat arrazoiengatik: dispertsioa, moduluen arteko ordutegiak, euskal presoak ordu berean aurrez aurrekoa ez egiteko espetxearen erabakia...

Erraza da ulertzen umeak eta iraupen luzeko bidaiak ez direla uztargarriak. Pentsa dezagun une batez nolakoa behar duen ordu luzetako bidaia egin beharra hilero, behin edo gehiagotan, aitarekin edo amarekin egoteko. Gainera, bidaia horiek ez dira oporretara joaten gareneko lasaitasunez egiten, aitzitik, aste guztia eskolan edo institutuan pasa ondoren abiatu behar izaten dute senide txiki horiek. Jende gehienarentzat, asteburuak aste osoko zurrumbilo erotik atera eta aisialdirako, lasai egoteko izaten diren bitartean, ume horientzat kilometro eta desordutan jan eta lo egiteko egunak izaten dira gehiegitan. Izan ere, bisita ordutegiak espetxeak finkatzen ditu eta maiz haurren siesta, jatordu... orduan izaten dira.

KARTZELA ERREJIMEN BEREZIA

Euskal presoek espetxe politika berezitua aplikatzen zaie. Egoera hori ez da berria, azken 30 urteetan gutxienez, hori egin baitute Espainiako zein Frantziako gobernuak. 1978 eta 1987 urte artean euskal preso politikoak kartzela hauetan izaten zituzten: Madril, Yeserias, Soria, Herrera de la Mancha eta Puerto de Santa Marian. Argi ikusten da, beraz, dispertsio politika martxan 1989 urtean jarri bazuten ere, presoak Euskal Herritik urruntzea askoz lehenagokoa dela. Gainera, hori guztia Espainiako Kode Penaleko printzipioek diotenaren aurkakoa da. Ondorengoa irakur daiteke:

“Presoak sustraiak dituen tokian bertan bete behar du zigorra. Espetxe espainiarak Estatu guztian barrena daude sakabanatuak. Horrek ahalbidetzen du giltzapetuek jaioterritik gertuen dutenean betetzea beren zigorra, eta, hartara, familia eta gizartetik ez banantzea.”

Aurretik irakurritakoa ez da gertatzen, ordea, euskal presoak espetxeratzen baitituzte ehunka edota milaka kilometrotara dauden kartzeletan. Gainera, egoera hori ez da aldi baterako soilik edo iragankorra izaten. Aitzitik, epaituak izan aurretik hasi, eta zigorra erabat bete arte mantentzen da.

Espetxeetako araudi orokorraren arabera salbuespenekoak diren neurriak euskal presoek modu sistematiko, unibertsal eta iraunkorrean aplikatzen zaizkie (FIES erregimena, lehen gradua, isolamendua...) Espetxean sartzen diren lehen momentutik aplikatzen zaizkie neurri bereziak, eta espetxealdi guztian zehar mantentzen dira salbuespenekoak diren arren. Neurri horiek murriztaileak dira, eta beraz, oinarritzko eskubideen kontra doaz: familia bizitzarako eskubidetik hasi eta askatasunerako eskubidera arte. Presoak beren jatorrizko lekuetatik eta familiaren bizilekutik aldentzeak edo komunikazioak oso mugatuak eta interbenituak izateak familia bizitzarako eskubidea mugatu egiten dute.

Espainiako estatuak espetxeratutako euskal preso guztien komunikazio guztiak kontrolatu egiten dituzte, espetxeratuak izan diren une beretik. Komunikazio guztiak grabatzen dira, gutun guztiak fotokopiatzen dira. Horrek, erabateko intimitate gabezia dakar. Gainera, komunikazioak interbenitzeak korrespondentzia mugatzea eta atzeratzea dakar. Espainiar estatuan ia euskal preso guztiek astean 2 gutun bakarrik idatz ditzakete; interbentzioa dela eta, bidalitako gutuna 15 egun edo hilabetera iritsiko da bere helmugara. Hori horrela izanik, 6 urteko haur batek bere ama-aitari bidalitako marrazkia eta idatzitako bi lerroak ez dira ama-aitaren

eskuetara 20 egun baino lehenago iritsiko. XXI mendean Hego Afrikara oporretan joan den izebarekin haurrak Skype bidez hitz egin dezake; aldiz, espetxeratutako aita-amari bidaltzen dion marrazkia ia hilabetera iritsiko zaio.

Espainiar estatuan, presoak eskubidea du seme-alaba jaiotzean etxera bisita berezia izateko. Aipagarria da gaur egun eskubide hori eskatu duten guraso presoen egoera. Hainbati hasieran etxeko bisitarako eskubide hori ukatu egin bazaio ere, orokorrean baimentzen zaie. Presoak euren bizilekuetatik ehunka-milaka kilometrotara daudenez, etxean bisita hori egiteko dauden espetxe urrunetatik Zaballa edo Iruñeko espetxera ekartzen dituzte; traslado horietan aste bete, bi aste igarotzen dituzte. Etxeko bisita horren iraupena aldagarria bada ere, azken denboran ordubete eskaseko bisita izaten da. Seme-alaba jaio berriarekin egon ahal izateko 60minutuko bisita besterik ez; eta horretarako, bi asteko bidaia. Gainera, etxeko bisita hori poliziaren erabateko zaintzapean izaten da, uneoro presoak begi-bistan edukiz eta kasu bat baino gehiagotan eskuburdinak jarrita. Preso sozialen kasuan,aldiz, bada erditzean ere egon izan ahal duen presorik. Frantziar estatuan ez da etxera bisita egiteko baimenik.

KONDENA LUZEAK ETA OSORIK BETE BEHARRA

Aipatu ditugun 113 haur-nerabe horietako askok ez dute inoiz aita-ama kalean ezagutu. Hau da, jaio zirenetik espetxe barruan izan dute aitarekin-amarekin izan duten kontaktu bakarra. Haur txikiek ez dute ulertzen zergatik dauden lagunen guraso guztiak ikastolako festan, edo parkean, edo pilota partidan, eta beraienak ez. Zergatik dituzten lagunek ikastolan familiari buruzko lana egitean argazki piloa, eta eurek gutxi batzuk dituzte, dituztenen kasuan. Izan ere, familia argazkia izate hutsa

ezinezkoa da hainbat espetxetan. Eta lortzen dutenen kasuan, gehienetan epai-learen auto bidez lortzen da erabili eta botatzeko kamerarekin urtean behin edo.

Haur bakoitzak bere bizipen, garapena badu ere, orokorrean haurra 2-3urte dituenetik aurrera bere egoeraren inguruko galderak egiten hasten da: Zergatik dago ama-aita kartzelan? Noiz aterako da? Noiz etorriko da etxera? Gaur egungo salbuespeneko legedi gizagabea aplikatuta guraso hauetako asko hemendik 20-30-40 urtera aterako liratezke kartzelatik. Bakean eta elkarbizitzan oinarritutako jendarte baten eraikuntzan izan dezakete haur hauek etorkizun hau? Gainera, ezin aipatu gabe utzi azken urteetan egoera politikoak izan duen bilakaera. Datu esanguratsua da ikustea, 113 haur hauetako asko ETA erakundeak bere ekinbide armatua utzi ondoren jaio direla. Zehazki, 47 ume %41ak ez du ETAREN jardunik ezagutu. Are gehiago, behin betiko su etena iragarri zenean 3 urte zituzten haurrak gehituz gero, 67 lirateke; %59a. Egoera politikoa aldatu bada ere, haur hauen egunerokoak sufrimenduz beterik darrai; egunerokoan aita-amaren gabezia fisikoari egin behar baitiete aurre. Egoera hori irudikatzeko nahikoa da dituzten ametsak entzutea. Gehien errepikatzen den ametsetako bat aita-ama eskolara bila joatea da.

AITA-AMA ESPETXEAN IZATEAK

UMEEN BIZITZAN ETA
GARAPENEAN DITUEN ONDORIOAK

BUENA SODEN
ONDOAN BIZI
NAI DUT

Guraso baten edo bien absentziak seme-alabengan dituen ondorio psikologikoei dagozkien inferentziak

Euren egunerokotasunean, guraso bat ikusteko ehunka kilometroko bidaia egi-tea erabaki duten bakoitzean; ospakizun bat, festa bat edo lagun eta familiarekin bizipen bat sakrifikatuz, kendua izan zaien haurtzaroaren parte bat dago. Bisita gertatzen den momentuan bertan ere, euren haurtzaroa espetxeko atean uzten dute euren garunaren garapenaren pentsamendu konkretuak ezin uler dezakeen arerio-giro batera egokitzeke.

Autonomia pertsonalaren eraikuntzan sortzen diren ondorio psikologikoei dagozkien inferentziak

Egoerak eragindako garapen goiztiarra gertatzen da. Gurasoa ikusteko, denboran eta espazioan mugaturiko bisita egiteko, ehunka kilometroko bidaia egin eta banaketa asimilatzen duten bitartean, bidaia bera bueltan egitearen odiseak, aste-buru osoa hipotekatzen die haur hauei. Euren adineko haurrak baino autonomia-goak izatera behartuak izan dira.

Guraso absentea bisitatzeko egin beharreko bidaia luze eta etengabeek sortutako ondorio psikologikoei dagozkien inferentziak

Galdetegietan sarri agerturiko gaia izan da antsietate aurreratuarena, bisitarako bidaia egin baino pare bat egun lehenago agertzen dena. Ezinegona, lotarako arazoak, urduritasuna, gogo aldarte aldakorra... bisita aurretiko astean agertu ohi

diren sintomak dira. Ehunka kilometro luze, astun, nekagarri egin behar izaten dituzte espazioan eta denboran mugaturiko bisita egiteko. Haur-nerabe hauek hila-beteen bi aldiz jasan ohi dute bidaien nekea eta bisita arriskuan jar dezaketen baldintza eta testuinguru arerioaren aurrean “barne heldu goiztiar” bat garatzen dute sarri. Hau da, espetxe barruan bisitak dirauen bitartean, euren portaera gidatzen duen super-ego goiztiarra garatzen dute, arazorik sortu behar ez dutela nabari dute eta. Prozesu horren ondorioz, etxera itzultzean denbora tarte bat behar izaten dute normaltasunera itzultzeko; espetxean geratu den gurasoarekiko banaketa-ren asimilazioa, erantzunik ez duten galderen berragerpena, nekearen metaketa... direla eta. Ikastetxeko dinamikaren presioak eta egunerokotasunak errealitatera itzultzen laguntzen diete.

Hori gutxi balitz, bi gurasoak espetxean izan dituzten haur batzuek kartzela bat baino gehiagotara egin behar izan dituzte bisitak eta kasu batzuetan urteak igaro dira espetxeko zuzendaritzak edo espetxe-epaileak bi gurasoak kartzela berean elkartu arte.

Bidaia etxean dagoen gurasoak bakarrik egiten duenean, seme-alabarik gabe, adingabeak banaketa antsietatea bizi du, galeraren beldur handian integratua dagoena. Gurasoak istripu bat izateko beldurra sintoma erregresibo bitartez erakutsi ohi da.

Guzti horren ondorioz sintomatologia anitza aurkitzen dugu: erruduntasuna, loaren alterazioa, espazioan kokatzeko zailtasuna, apatia, neke orokorra... Bidaiak estres testuinguruan egiteak beraien borondatearen aurka egitearen bizipenera daramatza, ondorioz, erruduntasun sentimendua garatuz.

Arlo afektiboan eragiten duten ondorio psikologikoei dagozkien inferentziak

Gurasoa espetxeratua izan denean haurrak izan duen adinaren eta barruan pasa duen denboraren arabera pairatutakoa oso anitza izan daiteke. Gehiengoak inpaktu psikologiko gogorrak jasaten ditu eta guztiek beldurra, ezinegona eta esperantza eza bezalako sentimenduak azaleratzen dituzte.

Emozioen artean galerarekiko beldurra oso ohikoa da. Etxean duten gurasoaren galeraren beldurra amets, marrazki proiektibo eta hitzetan azaltzen da proiektatua. Bi gurasoak galtzearen eta bakarrik gelditzearen beldurra konstantea da haurraren bizitzan eta bisitetan areagotzen da. Galeraren beldurra bortitza da.

Kontuan hartu behar da gainera, haur hauetako batzuk aitaren edo amaren atxiloteta momentua bizi izan dutela. Momentu hori oso bortitza izan da gehienetan; horrek haurraren izua, antsietatea, beste gurasoa galtzeko beldurra... eragin izan ditu.

Haserrea: bidaia, neke eta jasandako eragozpenen ondorioz. Asteburuko planen eta bisitaren artean aukeratu beharraren ondorioz. Harridura eta haserrea gertuago espetxeak badaudela konturatzean eta kilometroak zigor gehigarri baten moduan inposatuak direla ohartzean.

Esperantzarik eza: espetxeraturiko gurasoaren birgizarteratzea ezjakintasunari lotua dagoen sentimendua da. Haur-nerabea depresiboki etsitzen doa ulertzen ez duen absentzia baitu. Urteen poderioz guraso espetxeratuarekiko erlazioa eta elkartze eta kontaktu desira garatzen doa, eta egungo legedia bidegabearekin ase ezina da.

Inpotentzia: barruan dagoen gurasoarekin elkartzeko nahia eta espetxetik ateratzearen desira sentitzen dituenean, ezer egin ezin duenean garatzen den sentimendua da.

Eskola arloan azaltzen diren ondorio psikologikoei dagozkien inferentziak

Gurasoa espetxean izatean eskola arloan azaltzen diren ondorioak anitzak dira: errendimenduari dagokionean, bidaien ondorioz galtzen diren eskola orduei dagokionean, emaitzetan islatzen den ikasteko erritmoa mantentzeko zailtasunari dagokionean, bidaiak eragiten duten nekea eta ondorengo deskantsu beharri dagokionean, sozializazio eta sormenaren arloari dagokionean, kirol taldeetan parte hartzeari dagokionean; eskolaz kanpoko jarduerari dagokionean bidaien bateraezintasunagatik...

Egin gabeko galderen eta isiltasunen pisua

Haurrak hiru urte betetzen dituenetik aurrera guraso absentearekiko galderak agertzen doaz eta horientzako erantzunak haur baten pentsamendu konkretura egokitzen zailak dira. Izan ere, erantzun erlatiboekin galdera absolutuak erantzutea edo kontzepzio manikeodun testuinguru bat neutralizatzea, haurren pentsamendu konkretuan ez da erraza. Gurasoa espetxean zergatik dagoen edo noiz aterako den gisako galderak eta haurren beharretik jaiotzen direnak, egunerokotasunean azaltzen diren hainbat egoeratan errepikatzen dira, eskolan edo lagun artean haurrari galderak egiten dizkietenean, esaterako.

Ikastetxean gurasoaren absentzia oso agerikoa egiten da. Ikastetxera joateko orduan, handik etxera joateko momentuan, biografietan, irteeratan, taldeko planetan, errepresentazioetan eta funtzio kolektiboetan. Haurrak ez du guraso absente hori ikusten, baina beste haur batzuen gurasoen presentzia kolektiboa ematen den egoerek ageriago uzten dute maite den pertsona horren absentzia. Orduan areagotzen dira erantzun zaileko galderak, eta batzuetan erantzunen asebetetze ezak gaia saihestea eta isiltzea dakar.

Testuinguru areritsuan bizi dira jaiotzen direnetik

Espetxea testuinguru arrotz eta aurkakoa da; etsaitasuna nagusi da langile askoren jarreran, espetxeko egitura, murru eta burdinetan, zein legeen aplikazio arbitrario eta ezbidetzaroketan. Haur eta nerabe hauetako gehienek jaiotzetik pairatu izan dute etsaitasun hori. Bisitara doazenean gurasoari lore edo marrazki bat eramane nahi eta funtzionarioak eskuetatik kentzea, metalak detektatzeko arkutik pasatzea edota euren gurasoak nola miatzen dituzten ikustea eguneroko egoerak dira seme-alaba hauentzat.


Espetxe instituzioek familiekiko duten tratatuak haur-nerabeei eragiten die. Gainera, instalazioen baldintza kaxkarrak (lokutorioak, aurrez aurreko gelak, komun zikinak...) deserosotasun nabariak gain, autoirudian eta autoestimuan nahitaez eragiten duten faktoreak dira, nolabait senideak ere “ kartzelaratuak ” sentitzera iristeraino; euren ere zigorra jartzen ari balitzaie bezala.

Ama buru duten familiatan bizi diren haurrak


Gurasoak espetxean izateak ondorio ekonomiko zuzenak ditu haur eta nerabeen etxeetan. Batetik, urruntasunaren eraginez egin beharreko bidaiak direla eta; bestetik, familia gurasobakarretan bizitzeak dakartzan berezko zailtasunengatik.

Haur-nerabe hauen %94a bizi da gurasobakarreko familiatan. Eta, beraz, beraien etxeko diru sarrerek soldata bakar batera mugatzen dira. Horri, familia horien %88an familia burua ama dela gehitu behar diogu, alegia, emakumeen lan baldintzak gizonenak baino prekarioagoak eta soldatak baxuagoak direla.

Grafikoa 2014an EAE -ko urteko lan errenta:



Haur-nerabeen ardura nagusia ondorengo senideen esku gelditzen da:



- Algecirasko espetxera bidaia, Iruñetik, bi pertsonen joateko bidaia (1100 km). Kostu osoa:

o Etxerateko autobusean 310.20 €.

o Trenez: 628.000 €.

o Norberaren autoan: 384.90 €.

oHILEROKO KOSTU OSOA: Lau bisita eta aurrez aurreko bat, preziorik merkeena:
865.80 €

- Bapaumeko Espetxea (Estatu Frantsesean), 1100 Km


o Bidaiaren kostu osoa, bi pertsonen joanaldia: 478,00 € - 515,00 €.

o Hilabeteko beste bisiten kostua: 325 € x 3 = 975 €.

o Lau bisitetarako kostu osoa: 1475,00 €.

(Iturria: Etxerat Elkartea “Dispertsioa. Bisita eskubidearen prezioa”)

Azkenik, haur-nerabeen etxeetako zama ekonomikoari beste bat gehitu behar diogu: aita-ama presoa euren senideek mantentzen dute, (arropak, telefono deiak nahiz eguneroko bestelako gastuak) eta ez kartzela erakundeek, maiz pentsatu ohi den bezala. Ondorioz, senideentzat gastuak biderkatu egiten dira eta horrek etxe-ko ekonomian eta euren seme-alabengan ondorio ekonomiko handia eragiten du. Guraso bakarreko familiatan bizi izatearen ondorioz, familia zabalaren parte hartzea bereziki garrantzitsua da, bai zaintzari eta hazkuntzari, nola babes ekonomikoari dagokionean ere.



**AMAREKIN
ESPETXEAN
BIZI DIREN HAURRAK**

BUENA SOEN
ONDOAN BIZI
NATIDUT

Egungo egoera

Momentu honetan, Xua (Olatz Lasagabaster eta Patxi Salbideren umea), Haitz (Aitziber Cornado eta Asier Aginakoren umea); eta Izar (Sara Majarenasen haurra) daude espetxean. Picassenten lehenengo biak eta Aranjuezko espetxearen menpeko Alcobendasko pisuan bigarrena. Izarren kasuan, hiru orduz atera daiteke soilik kalera eta ezin daiteke, beraz, libre denik esan.

Ume hauek ere euren gurasoei ezartzen zaizkien salbuespen legeen biktima dira. Kartzela erregimen bereziak eta zigorra oso-osorik bete beharra, erregimen berezi honen ondorio da. Batetik, haur hauek euren gainerako senideengandik ehunka kilometrotara egotea (600 eta 400 km-tara, zehazki, hurrenez hurren). Bestetik, 3 urte betetzen dituzten egunean euren amengandik bereiztea ere. Izan ere, erregimen arrunta ezartzen zaien gurasoen haurrek, orokorrean, izaten dute euren amekin bizitzen jarraitzeko aukera (egoitza bereziak, 3. gradua...); ez, ordea, euskal presoek seme-alabek. Euren egoera edozein delarik ere (3/4ak beteta izan arren, adibidez), haurrak euren amengandik bereizten dituzte, horrek umearengan eragin negatibo nabarmena izan arren.

3 urte betetzean amarengandik banandu ez duten haur bakarra Izar izan da. Bi hilabete lehenago bere aitak labanaz erasotu, hiltzorian utzi, eta ama-alabak ez bantatzeko eskatzen zuen iritzia publikoaren eraginez, aipatutako pisu berezi horretara eramane zituzten. Momentu honetan, Sara Majarenasek zigorraren % 95a bete duen arren, eta indarkeria matxistak beraiengan utzi dituen zauri sakonez gain, ama-alabek aske izan gabe jarraitzen dute. Salbuespen legeriaren beste adibide argi bat da aipatutakoa.

Espetxean bizi diren haurren bizi baldintzak

Estatu espainiarreko amen moduluak modulu arruntak izan ohi dira. Hau da, beste edozein moduluren neurri eta errutina berberak izaten dituzte. Baita funtzionamendua ere: funtzionarioen presentzia iraunkorra da, miaketak egiten dira, bozgorailuetatik mezuak etengabeak dira...

Espazioari dagokionez, amarekin espetxean bizi diren hurrek ondorengo espazioetan egiten dute bizitza: patioa, jangela - egongela eta ziega. Horrez gain, umeek haur eskolara joateko aukera izan ohi dute. Ateak elektrikoak dira gaur egungo espetxeetan, eta funtzionarioek ireki eta isten dituzte ziegak nahiz modulutik sartu eta ateratzeko ateak.

Jarraian, Aranjuezeko amen moduluko euskal presoek duela bi urte salatu zituzten bizi-baldintzen kontakizuna: Aranjuezeko haur-eskolak belardi modukoa du kanpoan. Berez, hurrek arratsaldero ordubetez bertara ateratzeko eskubidea zuten. Hori ez zen betetzen, ordea, aitzakiatzat hartuta, ume kopurua txikiegia zela, ez zegoela funtzionario nahikorik... hainbat hilabetetan 3 edo 4 aldiz besterik ezin izan zuten atera. Belardi hori espetxean dagoen leku natural bakarra da. Hor bakarrik ikusi, ukitu zitzaketen hurrek loreak, zuhaitzak... Bestetik, elikadura funtsezkoa da haurraren garapen egokirako. Ematen zieten janaria oso kalitate txarrekoa, aurrez prestatua, izoztua, hotza izaten zen. Gurasoak kexu ziren bestetik, elkarbizitzako aurrez aurrekoak egiteko gela ez zelako egokia haurrak 4 orduz bertan egoteko. Oso txikia izateaz gain, oso zikin egoten zen, eta jostailurik egotekotan oso kalitate txarrekoak. Honela kontatzen zuten iazko udan: *"Hurrek ez dute gela horretan irauten, luzeegiak egiten zaizkie komunikazioak. Hemen bizi den 2 urteko haur batek joan nahi ez duenez, gurasoek momentuz bisita hori berri-*

ro ez eskatzea erabaki dute.” Beraiek bereziki aurreko hiru puntuak azpimarratzen zituzten arren, badaude aipatzeko moduko beste hainbat ere: haurrak daudenean bisitak kristala duen lokutorioetan egin ordez aurrez aurrekoen gelan egitea, haurrak kalera ateratzeko ordutegia egokitzea, megafoniaren erabilera, zenbaketak egiteko modua, miaketak haurrak aurrean egon gabe egitea, jostailuak izateko eskubidea, berogailua neguan denbora luzeagoan piztea, eskaileretan arriskuak ekiditeko hesiak jartzea ...

Osasunarentzat kaltegarria ez den ingurunea behar dute haurrek. Zarata gogorrek, esaterako, garapena erabat oztopa dezakete; nerbio-sistemari atsedena hartzea, burua lasaitzea, nahikoa lo egiteko beharra asetzea edo-eta beste pertsona batzuekin harremanak izatea zaildu dezakete. Azken batean, lasai bizitzea. Zentroetako bozgorailuen ondorioz, kutsadura akustiko handia dago gaur egun; horiek etengabe ari dira lanean, ikaragarri ozen. Hori dela eta, zentroan bertan bizi diren pertsonen lasaitasuna eta loa eragozten dituzte, batez ere, haurrena.

Agerikoa da, beraz, izugarri zaila dela (edo ezinezkoa) isolamendu egoera batean estimulazio edo elkar-eragite egokiak aurrera eramatea lehen aipatutako kartzelako interakzio-baldintza berrietan. Estimulazioaz ari gara, hizkuntza garapenaz eta garapen kognitiboaz ari gara (ikaskuntza-estimulazioa, jolasaren potentziala eta estimulazio kognitibo-linguistikoa), garapen sozio-emozionalaz ere ari gara (emozioen adierazpena, muga eta arauak ezartzea, autoestimu eta autonomiaren indartzea, eta abar) eta baita ingurune fisiko eta sozialaren antolaketaz ere (ingurune fisikoaren kalitatea, hazteko eran aitak edo bigarren pertsona horrek duen parte-hartzea, familia zabalarekin eta laguntza ematen duen sare sozialarekin dagoen harremana...).

Umea preso ez dagoenez, eta legeak kalera nahi beste ateratzeko eskubidea au-

reikusten badio ere, traba ugari aurkitu ohi dituzte horretarako. Astean behin edo bitan ateratzeko mugapena, arratsaldeko 17:00etan itzultzeko baldintza (Aranjuezko kasuan)... Modu honetan, zailtasun ugari jartzen zaizkie familiei haurrak espetxeetatik ateratzeko, senideek ezin dute gozatu elkarrekin ez natur-ingurunez ez eta familiartekoekin dituzten harremanez: *“umeek libre jardun behar dute, horrekin batera, ingurune egokia izan behar dute, ahal dela, ahalik eta denbora gehien leku itxietatik kanpo daudela eta elementu naturalak inguruan dituztela (ura, lurra, landareak, animaliak eta abar) gorputz jarduera ezberdinak aurrera eraman ditzaten. Oinarri-oinarrizkoak dira jostailuak, bakarka jolasean aritzekoak, eta batik bat, taldean aritzeko jolasak, ahalegin eta gaitasun fisikoak lantzen laguntzen dutenak. Artikulazio guztiak lantzen saiatu behar dugu, jarduera ezberdinak egin behar dira (Ibili, lasterketak egin, jauziak,...). Oso egokiak dira horretarako eta beste zenbait beharretarako familiarekin zein lagunekin egiten diren txangoak, batez ere maiz egiten badira eta landa inguruetara joaten badira.”* (López, 2008:97).

Komunikazioak oso mugatuak dira. Hainbat espetxetan senideekin bisitak gela batean egiten baziren ere, aukera hau gero eta murriztagoa izaten ari da, bisitak lokutorioetan - kristal bidez eta kabina txikietan- izanik (Aranjuezen kasu). Hori oztopo nabaria da haurrek gainontzeko senideekin harreman fisiko eta zuzenak izan ditzaten. Gainera, haurrek euren familiartekoekin komunikazio eta harreman iraunkor eta osasuntsua izan dezaten eragozten du. Izan ere, baldintza murriztaile horiei, urruntasun politika gehitu behar zaie; aitzak -kalean dagoen kasuetan- eta gainerako senideek ehunka kilometro egin behar baitituzte umetxoa ikusteko. Ondorioz, hotel eta antzekoetan eduki behar izaten dute haurra espetxetik ateratzen dutenean; aitona-amona, izeba-osaben etxeak Euskal Herrian ehunka kilometrotara daudelako.

Bestalde, bereziki mugatua eta murrizta da komunikazio eskubidea haurra eta aita

presoaren artean. Izan ere, haurrak 24 orduz bere amarekin egoteko aukera badu ere, aitak bere seme-alaba astean 40 minutuz baino ezin baitu ikusi hau ere preso eta espetxe berean dagoen kasuetan, beti ere. Horrek aita eta haurraren arteko harreman normalizatua garatzea ezinezkoa egiten du.

Estatu frantsesean euskal haur gutxiago jaio eta bizi izan dira espetxeetan, besteak beste, emakumeei harreman sexualak izan eta ama izateko eskubidea ukatzen zaielako. Ez dago horretarako aukerarik ahalbidetzen duen bisitarik, esaterako.

Haurrentzat egokituriko modulua duen espetxe bakarra Fleury da, gainerako espetxeek gehienez ere ziega bat dute horretarako prestatua. Espetxeen arteko desberdintasunak handiak badira ere (Roanne, Pau...), hauek ez dira kartzeletako ohiko egunerokotasunetik gehiegi aldentzen. Hala, ordutegia, janaria, patioen neurriak... beste edozein presoren oso antzekoak dira amen kasuan ere. Honela kontatzen du 2008an Fleuryko espetxean ama izan zen Alaitz Areitio presoak: *“bizi baldintzak modulu arruntean baino pixka bat leunagoak ziren baina hala ere, ordu pila pasatzen genituen 9m2-ko ziega batean itxita. Horrek, estres egoera handia sortzen zidan, batez ere, haurra gaixo zegoenean”*.

Famili testuingurua zein hizkuntzaren garapenari begiratzen badiogu, ukaezina da guraso edota senitartekoek imitaziorako eredu gisa duten garrantzia. Aintzat hartu behar da ezagutzen eraikuntza babesle gisara betetzen duten papera ere, hurrek haien adimen egiturak garatzen joan daitezen; garapen prozesu hori nekez burutuko da espetxe baldintza murriztaile hauetan.

Etsaitasuna. Gurasoa ikustera bisitan joaten diren hurrek behar baino etsaitasun eta hostasun handiagoa pairatzen badute, zer esanik ez espetxean bizi diren hurrek. Barroteak dituzte euren leihoetan, horma itxien artean bizi dira, ateak fun-

tzionarioek ireki eta isten dizkiete ordutegi zehatzetan. Gainerako senideak (aita, aitona-amonak, izeba-osabak...) bisitan doazenean amei miaketak egiten zaizkie umeen aurrean. Senide horiekin ordu batzuz kalera irteten direnean ere, bueltan haurraren poltsa, berokiak... miatzen dituzte. Baina, agian, etsaitasuna agertzen den egoerarik nabarmenena, eskularruak jarrita eta haserre aurpegiarekin hainbat funtzionariok ama eta umearen ziega goitik behera miatzen dutenean izan daiteke.

Haurra pediatarrengana eraman behar denean, herriko anbulatoriora joan behar izaten da, espetxean ez baitago pediatarrik. Trasladoa taxi edo anbulantzia batean izan ohi da, baina guardia zibilaren “*zaintzarekin*”, beti ere.

Amaren eta umearen arteko bereizketa

Edozein ama eta umeren arteko lotura berezia bada, zer esanik ez haur hauen kasuan. Ama da umearen atxikimendu irudi ia bakarra, berarekin egon baita 24 orduz hiru urteetan zehar. Berak eskaintzen dizkio lasaitasuna, segurtasuna eta oreka umeari. Ondorioz, bere faltak ezinegon handia eta ziurtasun eza eragiten dizkio. Behin kalera aterata, ume horiek gabezia horretara egokitze prozesu luze eta konplexua bizitzen dute gehienetan.

Aldaketa handia da, eta gainerako senideen babesa eta laguntza funtsezkoa badira ere, amaren hutsunea oso handia izaten da haurrentzat. Izan ere, eta kontrakoa badirudi ere, ume hauentzat momentu zailenak eta konplexuenak ez dira espetxean igarotzen dituztenak, amarengandiko banaketa gertatzean bizi behar izaten dituztenak baizik. Bai, kartzelan gabezia txiki asko izaten badituzte ere, behin kalera aterata, gabezia handi bat izatera igarotzen dira: amaren falta.

Ordutik aurrera, ama eta alaba/semearen arteko harremana hilean ordu eta erdiko aurrez aurrekora mugatzen da, estatu espainiarrean. Izan ere, legeak umeak kristal bidezko bisitetan egotea onartzen badu ere, gurasoen erabakiz hau ez da oso ohikoa izaten. Bortitza izateaz gain, hiru urteko haurraren harremanak oraindik ere jolasa, mugimendua eta kontaktu fisikoan oinarritzen baitira, ez elkarriketa hutsean; eta lokutorioek ez dute horretarako aukerarik ematen. Hala, eta arrazoi berberetatik, amek astean dituzten bost minututako zortzi telefono deiek ere ez dituzte haurraren beharrak inondik inora asetzen.

Urteak betetzea edozein umerentzat gauza ederra bada, ezin gauza bera esan espetxean jaiotzen diren haurren kasuan. Hiru urtez egon daitezke elkarrekin, baina bi urte betetzen dituzten momentutik, atzera kontua martxan jartzen da preso dauden ama eta haurrentzat: 12 hilabete geldituko baitira hortik aurrera haurra banaketarako prestatzeko: kalera egokitzeko, aurrerantzean bere erreferentzia berria izango den pertsonekin egotera ohitzeko, eta batez ere, amarik gabe bizitzen ikasteko.

Frantses estatuko espetxeetan haurrak 18 edo 24 hilabeterekin atera behar izaten dute kalera, ama espetxean utzita. Une horretatik aurrera, legeak, beste urte batez bisita erregimen berezia aplikatuko du ama eta haurraren artean. Hau da, gehieenez ere, umeak 3 urte bete arte. Une horretatik aurrera, haurra bisita erregimen orokorraren barruan kokatuko da eta, ehunka kilometro egin beharko ditu bere ama ikusteko.

Hona hemen, Iñaki Barrutia psikologo klinikoak, amarengandiko bereizketak haurrak bere buruaz duen irudian duen eraginaz dioena:

Autoirudiaren eraikuntzan sortzen diren ondorio psikologikoei dagozkien inferentziak.

Autoirudia: Nortasunaren egituraren psikogenesian, hirugarren garaian, 24 eta 36 hilabete artean sortzen da norberaren identitatearen lehen kontzeptua gizaki bezala eta indibiduo kontzeptu gisara. Margaret Malherrek *“infantearen jaiotza psikologikoa”* bezala definitzen du. Garapenaren garai funtsezko honetan, espetxeratua ama zen kasuetan, egutegiko data baten hoztasunarekin banatuak izan dira, haurraren hirugarren urtebetetze egunean, haurrak espetxea eta ama abandonatzen dituenean. Haurrak funtsezko galera baten dolua elaboratu behar izan du, atxikimendu lokarri garrantzitsuena sortu duen pertsona desagertzean egunerokotasunetik.

Umeen eskubideak

Nazioarteko eragile, instituzio edota GKE-ek aita/ama edo biak espetxean dituzten adin txikikoekiko kezka handitzen joan da azken bi hamarkadatan. Halere, zaila da horri helduko dion legedi zehatza topatzea. Baina badira zenbait printzipio orokor, eta oso adierazgarriak, haurtzaroan ditugun eskubideez dihardute-eta.

Egoera sozial berrien eragina dela eta; mugimendu migratzaileak, gurasoen banaketaren ondorioz sortutako familia anitzak, mugaz bestaldeko banaketak... oinarrizko bi ideia azpimarratu behar dira: umeek euren aita-amekin harreman egokia eta jasangarria izateko eskubidea, eta hori, baldintza egokietan gauzatu beharra. Beraz, zuzenean izan dezaketen eraginaz jabetuta, instituzioak eta Estatu/gobernuek hori guztia bermatzeko ardura dute.

Informe hau osatzeko NBE -n (Nazio Batuen Erakundea) eta Europar Batasuneko legedian oinarritu gara, nahiz eta munduko beste lekutako esperientziak biltzen dituen dokumentuak ere aintzat hartu.

Hautzaroan ditugun Eskubideen inguruko lehen urratsak Nazioen Ligak eman zituen, 1924an. Urte batzuk beranduago, 1948an NBEak Giza Eskubideen Aitorpenean ez ditu zehatz-mehatz aipatzen, baina testuinguruan aitortza badagoe-la ondoriozta daiteke. Eta azkenik, 1959an, azaroaren 20an, Umeen Eskubideen Aitortza gauzatzen da, 6.adierazlean honela adierazten du: *“Haurrak bere nortasunaren garapen oso eta harmoniatsurako maitasuna eta ulermena behar ditu. Aukera dagoen guztietan haurra gurasoen babes eta ardurapean haziko da, eta betiere afektuzko eta segurtasun moral zein materiala bermatuta dituen giroan; salbuespen egoeretan baino ez da banatuko adin txikikoa bere amarengandik.”*

Horren ondoren, 1989an, Hautzaroko Eskubideen Hitzarmena idatzi zen, bertan baieztatzen denez, umeei helduek dituzten eskubide berberak dituzte, eta gehiago zehazten da lehen enuntziatuen segidan. Umeen gainera interes barnebiltzen dute 3., 9., 18., 20., 21., 37., eta 40.artikuluek.

1992ko irailaren 21ean, Europar Parlamentuak ontzat eman zuen Europako Umeen Eskubideen Karta, bertatik azpimarragarriak iruditzen zaizkigu hiru puntu:

12.- *“ Haur orok dauka gurasoez gozatzeko eskubidea, edo, hauen faltan, hauek ordezkatzeko dituzten pertsona zein instituzioez. Aitak eta amak ardura partekatua dute honen garapenari eta hezkuntzari dagokionez [...] Estatuak erakunde, zerbitzu eta erraztasun sozialen bidez bermatu beharko diete gurasoei dagozkien ardurak bete ahal izateko beharrezko asistentzia.”*

15.- *“Haurrari dagokion erabaki administratibo zein judizial orok, honen interesen defentsa eta babesa izango ditu lehentasunezko helburu.”*

16. *“Guraso biak edo bietako bat askatasun - gabetze zigor bat betetzen ari dire-*

nen haur orok, hauekin harreman egokia garatu ahal izango du. Amekin espetxean bizi diren haur txikiek egitura eta zaintza egokiez gozatu ahal izango dute.”

Europar Batasuneko Oinarrizko Eskubideen Kartak (2000ko abenduaren 7an) onartzen du, 24 (3) artikuluan, bere aita-amarekin kontaktua mantentzeko ume orok duen eskubidea. Idazketak argitzen du eskubide horren benetako zentzua, eta “kontaktu” hitzak bereziki: oinarri erregular baten baitakoa, harreman pertsonal baten garapenerako onarpena, eta modu zuzenean izan beharrekoa, gainera. Muga bakarra umearen gain-interesa izango litzateke (hau da, harreman horiek adin txikiko pertsonarentzat onuragarriak ez balira).

Aipaturiko artikulua NBEko Europako Umeen Eskubideen Kartako 9 (3) artikuluan oinarritzen da: “Partaide diren estatuek ama, aita edo biengandik banatua izan den haurraren eta horien arteko harreman pertsonal eta zuzena errespetatu beharko dute oinarri erregular baten gainean; haurraren interes gorenaren aurkakoa denean izan ezik.”

Bestalde, Europako Umeen Eskubideen Kartako 8.15 artikulua agintzen du aita/ama edota biak espetxean dituen umeak eurekin izan beharreko kontaktu egokirako aukera bermatu beharra.

2005ean argitaratu zen Europako Kontseiluko “umeen kontaktu erlatiboa”ri buruzko Hitzarmena. Estatu espainiarrak 2015ean sinatu zuen, baina oraindik ez du berretsi, beraz, ez dago bere xedapenak errespetatzera behartuta, izan ere, Hitzarmen bat sinatzeak horren aurkako neurriak ez hartzea eta Tratua ez amaitzea dakar, baina loteslea da berresten den arte. Halere, hiru Estatuk berretsi dutenez, EBn indarrean dago; eta Espainiak berretsi bezain laster, berehalako ezarpena izango luke.

Orain, hortaz, bere ezarpen hutsa baino bere berrespena aldarrikatu beharko litzateke (2005eko data duela kontuan hartuta, bereziki), ondoren eskubide horren berehalako gauzatzea exijitzeko.

Hitzarmenak zehazki espetxe-egoerak aipatzen ez dituen arren, aita/amen eta umeen arteko kontaktuaz dihardu; horiek desiragarri izan ez diren, edo indarrez banatuak izan diren kasuetan adin txikikoen eskubideak nola bermatu behar diren adieraziz.

Kontaktua honela definitzen du: *“1. Denbora epe mugatu batean 4 eta 5 artikuluetan aipatutako pertsona batekin (aita, ama eta gertuko senideak) haurrak egiten duen egonaldi edo topaketa, beti ere haur hori egunerokotasunean eurekin bizi ez denan. 2. Haurrak aipatutako pertsonarekin egiten duen edozein komunikazio forma. 3. Aipatutako pertsonari haurrari buruz, zein haurrari pertsona horri buruzko informazioa helaraztea. ”*

Kontakturako aginduak zera esan nahi du: autoritate judizial baten erabakiz; autoritate judizial konpetenteak berretsia, edota ofizialki idatzi edo erregistratua, beraz, gauzagarria.

Nabarmendu beharrekoa da, 2010eko martxoan Haurtzaroko Eragileen Plataformak, umeekin lotura duten Espainiako GKE-en elkarteak, tartean UNICEF, Estatu espainiarreko Konbentzioaren ezarpenaren ebaluazioan honako hau aipatzea: *“Haurraren interes gorena zein den zehazten duen eta kasu bakoitzaren arabera interpretazioa bermatuko duen prozedura bateratu baten gabezia”*. Hortaz, eskubide horien gauzatzea zailtzen du, zalantzarik gabe.

Garrantzitsua iruditzen zaigu une batez umearen oinarritzko beharretan sakontzea,

esanahi hirukoitza baitu: eskubide bat da, printzipio bat eta prozedura-arau bat. Umearen eskubide bat da, bere oinarrizko beharrak beste arazo, behar edo interesen gainetik egon behar dute. Printzipio bat, izan ere, ahalmen juridikoak interpretazio bat baino gehiago onartuko balitu, umearen benetako beharra hobekien eta gehien asetzen duen interpretazioa aukeratu beharko litzateke. Eta prozedura-arau bat, izan ere, umearen interesean eragina izan dezakeen erabaki bat hartu behar den aldiro, prozedurak behar horien ondorioen estimazioa kontuan izan behar du.

Bestalde, Europako espetxe-araudietako estatu-kideen Europako ministerio Kontseiluko Aholkuak ere baditugu, Kontseiluak onartu zituenak 2006ko urtarrilaren 11ko bileran. Luzea da, baina txosten honen asmoa aintzat hartuz, zenbait puntu besterik ez ditugu aipatuko.

5- Espetxealdiko bizitzak komunitateko bizitzak dituen alderdi baikorretara ahalik eta gehien hurbildu behar du.

Beste uneren batean, zera berresten du:

17.1- Espetxeraturik dauden pertsonen, ahal den neurrian, euren etxe edota gizarte-errehabilitazio zentroetara hurbilen dauden espetxeak esleituko zaizkie.

17.3- Ahal den neurrian, presoei kontsulta egin behar zaie euren hasierako helmugaren inguruan, eta gerora egon daitezkeen gainerako espetxe lekualdatzeen kasuan.

Aurrerago, irakur daitekeenez:

24.4- Bisiten antolaketak preso dauden pertsonen harreman familiarrak ahalik eta modurik normalenean mantendu eta garatzeko aukera eman behar du.

Amaitzeko, euren amekin espetxean bizi diren ume txikiez, zehatz-mehatz, ez di-rela preso moduan tratatuko baieztatzen du.

2015ean, Europako Oinarrizko Eskubideen Agentziak eta Europako Kontseiluak Umeen eskubideen inguruko Araudi europarraren gidaliburua editatu zuten. 5.3.puntuak gurasoekin, biekin, harremana edo kontaktua mantentzeko eskubideaz dihardu, eta bertan eskubide hori mota guztietako bikote banaketen gainetik gailentzen dela baieztatzen du (izan egoera familiarretik eratorritako banaketa, edo izan estatu-neurri baten ondorio dena). Lehen gogoeta edo kontsiderazioa umearen gain-interesak izan behar du, eta bere iritziei garrantzia eman behar zaie, bere heldutasuna eta adina aintzat hartuz.

Banaketaren arrazoiak bereizi egiten ditu, eta aita/ama edota bien espetxeratzea kontenplatzean, honako hau adierazten du: *“Autoritateek babestutako interesaren alde egiten dute, eta aldean arteko interesen eta adin txikikoaren interes gorena derrigorrez bermatu beharraren arteko oreka justua aurkitu behar dute. Haurrek bi gurasoekin harremana mantentzeko eskubidea dute eta hori bi kasuetan aplikatu behar da(familiarrean eta autoritateen ekinbidean).”*

Lan ezberdinetan aztergai den beste alderdi bat da bisita eta kontaktu horiek gauzatzen diren baldintzei dagokiena. Orokorrean, baldintza egokietan egiteari garrantzi handia ematen zaio, umei ez diezaieten estres gehigarriak eragin, kontaktu fisikoa egotea eta aita-ama eta txikiaren arteko interakzioa –jolasa, janaria

partekatu, edota sofaren bat egotea elkarrekin eserita egon ahal izateko...-. Gainera, umeeiko funtzionarioek duten jarrera ere aipatzen da, tentsiodun egoerak saihestu eta ezarri beharreko segurtasun neurriei dagokienean, tentsiorik gabe-koak izan daitezten.

Europako Giza Eskubideen Tribunaleko sententzia bat problematika horretan murgildu zen, (2012ko apirilaren 17a, Hoych versus Polonia, N° 13.621/08), eskatzai-leari arrazoia eman zion. Iritzien edo gogoeten artean, zera irakur genezake: *“Haurren espetxeko bisitek xedapen bereziak behar dituzte eta baldintza ezberdinei lotuta egon daitezke haurren adinaren, egoera emozionalaren edo ongizatearen eta bisitatzen duen pertsonaren egoeraren arabera”* Tribunalak honako hau ere bazioen: *“8. artikulupean Estatuaren betebeharrak baikorrek barne hartzen dute baldintza egokiak bermatzea, bisitarien ahalik eta estres gutxien sortuz, espetxe-ratzearen ondorio praktikoak aintzat hartuz –preso dagoen pertsonak- bere seme-alaben bisitak jaso ditzan.”*

NBEko haurtzaroko eskubideen inguruko Komiteak lehen aldiz jorratu zuen Ginebran gurasoak preso zituzten haurren egoera 2011n. Bertan, aholku eta praktika onen gomendioak kaleratu ziren; guztietan azpimagarriena haurren eskubideak ezin direla euren gurasoak dauden egoeragatik urratu; izan ere, askotan espetxeak berak beste eskubide batzuk urratzen ditu eta.

Europar Batasunetik haratago, bada bestelako esperientziak biltzen dituen dokumentaziorik ere. “Quaquer” delakoak (QUNOk), Nazio Batuen Erakundean, Errefuxiatu eta Giza Eskubideen inguruko publikazioa argitaratu du, horiek NBEko eragileen azterketa eta eztabaidak gauzatzen dituzte, eta berebiziko arreta ematen diete espetxe-egoerei. Gaur egun gertatzen denaren gaineko ikuspegi kritikoa egiten dute; eta edonon ezarri daitezkeen praktika onen inguruko analisia eta adibi-

deak proposatzen dituzte, zalantzarik gabe estatu espainiarrean ere ezar litezke praktika on horiek. Bere eskuorri guztiak (batzuk ingelesez, eta beste batzuk gaztelaniaz) eskuragarri daude www.quno.org. webgunean.

Lan horietan, neurri batean, seme-alabak dituztenei espetxe zigorra ezarri beharrean bestelako aukerak eskaintzen dituzten herrialdeen esperientziak biltzen dira. *“Niños y Madres en Prisión”* delakoan barne (Espainiako Barne-arazoetako Ministerio, eta Lan eta Arlo sozialekoak argitaratua). Egoera hau, ordea, oso mugatuta dauden harrera pisuena salbu, estatu espainiarrean ez da barnebiltzen, are gutxiago gainera, euskal preso politikoen kasuan.

Halere, haur horien eskubideak bermatzeko, eta benetako kontaktu baterako, euren aita/ama edo biekin harreman jasangarria eta aberatsa izateko, aukera aniztasuna zabaltzen du honek guztiak.

Bukatzeko, orriotara ekarri nahi dugu berriki Europako Parlamentuak kaleratutako Bergeron informea. Bertatik, honako puntu hauek azpimarra genitzake:

26. Funtsezkotzat jotzen du espetxe barruan garatzen diren haurdunaldietan zehar eta erditu ondoren emakumeek izan ditzaketen beharrei ere arreta berezia eskaintzea. Horretarako edoskitzerako egokiak diren guneak eta erizaintzako arreta kualifikatu, berezitu eta espezializatua euren esku jartzea beharrezkoa litzateke. Gainera, egokitzen jotzen du espetxean dauden haurren ongizatea kontuan hartuko duen eredu alternatiboen azterketa egitea. Azkenik, baieztatzen du haur eta amen banatze automatikoak haurrengan nahaste emozional larriak sortzen dituela eta hori erantsitako zigor gisa uler daiteke bai haurrentzat zein amentzat.

28. Partaide diren estatuak animatzen ditu presoek eta haien senitarteko eta lagu-

nekin aldizkako harremanak bermatzera, haien bizilekutik gertu dauden zentroetan zigorra betez, bisitak, telefono deiak eta komunikaziorako bitarteko elektronikoen erabilera erraztuz, epaileak aurrez onartu badu eta espetxe-zaintzaren ikuskapean egiten bada, familiarteko loturak babesteko helburuarekin; gogoratzen du familia nozioa zentzu zabalean ulertu behar dela RR\1130464ES.docx 13/28 PE601.203v02-00 ES horrela formalizatu gabeko harremanak barne hartzeko; aipatutako lotura horiek mantendu ahal izateko behar diren baldintzak aurreikustea garrantzitsua deritzo.

29. Partaide diren Estatuetakoko batzuek darabilten urruntze espetxe legedia gaitzesten du, preso senitartekoentzat zigor erantsia baita. Beraien sorterritik urrun dauden preso guztien hurbiltzea ahalbidetuko duten neurriak sortzera deitzen ditu, lege ikuspegitik justifikatutako arrazoiak direla medio autoritate judiziala aurka agertzen den kasuetan izan ezik. Gainera, oroitarazten du CEDH -aren (bizitza pribatua eta familiarraren errespeturako eskubidea) 8.artikuluaren urraketa dela Europako Giza Eskubideen Auzitegiak dioenez, pertsona bat bere familiarengandik hain urrun espetxeratzea bere familiaren bisitak jasotzea oso zaila edo ezinezkoa egiten bada.

35. Komisioari eskatzen dio preso seme-alabek jasan ditzaketen diskriminazioak gainditzeko politikak sustatu ditzala, jendarte integratzaile eta justu baten eraikuntza indartzearen ikuspegitik.

36. Aitortzen du hurrek haien gurasoekin harreman zuzena izateko eskubidea, eta era berean, berresten du espetxeratuaren eskubidea bere seme-alaben zaintzan dagokion funtzioa betetzeko. Horri dagokionez, uste du espetxeek haurrentzat espazio egoki bat izan beharko luketela, bertako hurrez arduratzeko beharrezko formakuntzadun funtzionarioak, gizarte langileak eta haurrak zein familiak espetxeko bisitaldietan zehar lagundu ditzaketen ONGetako bolondreekin osatuta.

37. Komisioari eskatzen dio aintzat har dezala Batasuneko eskalarekin bat datorren memorandum bat sortzeko aukera, modu horretan preso dauden gurasoen familia harremana bermatu dadin eta gurasoei haurren hezkuntzako une garrantzitsuetan presente egon daitezen utziz, modu horretan haurren interesak babestuz.

38. Azpimarratzen du bere bizilekuko Estatua ez den Estatu partaide batean espexeratuak diren presoek beraien familiekin harremanak mantentzeko zailtasun gehiago dituztela.

ONDORIOAK

BUENA SODEN
ONDORIO BIZI
NAHIDUT

Adingabeak gure komunitateko zatirik zaurgarriena dira eta ezin dugu onartu espetxe politika arbitrarioa euregana hedatu dadin. Lan hau guraso baten edo bien absentziaren ondorio psikologikoen eta sintomen aniztasunaren laburpen txikia da; dispertsioaren eta espetxeratutako gurasoengandik banatzen dituzten kilometroengatik biziagotzen dena.

Ondorio psikologiko hauen eta sintomatologia anitzaren eragile determinatzailea guraso kartzelaratuaren absentsia da eta hau larriagotu egiten da espetxe politikaren aplikazioak birgizarteratze eskubidea kentzen dionean presoari. Birgizarteratze ezinezkotasunera kondenaturiko presoaren itxaropenik eza beregaindik haurrenganaino iristen baita etsipen depresibo gisan.

Euren gurasoei salbuespen legeria eta kartzela erregimen ez-ohikoak aplikatzearen ondorioz, haur eta nerabe hauek ZIGOR HIRUKOITZA pairatzen dute, inolako deliturik egin ez badute ere. Lehen zigorra, gurasoaren gabeziarekin bizitzea da, hutsune emozional horrekin bizitzea; familia bizitza normalizatua garatu ezina. Bigarren zigorra, aita edo ama –ala biak- inoiz kalean eta euren ondoan ikusteko itxaropena ukatzean gauzatzen da. Kasu honetan gainera, gurasoa espetxean duten gainerako hurrekiko diskriminazio argia ematen da. Lege arrunta aplikatuz gero, posible bailitzateke haur hauek, baimen bidez, asteburuetan, gabonetan nahiz euren urtebetetze egunean gurasoak etxean izatea, edota, zigorraren 1/4a beterik, hirugarren graduari ama edo aita kalera ateratzea, edota, zer esanik ez 3/4ak beteta dituzten gurasoen kasuetan, etxean eta euren seme-alabekin egongo bailirateke dagoeneko. Horiek dira gurasoa espetxean duen edozein hurrek dituen eskubideak, eta 113 ume hauei ukatzen zaizkienak: ama-aita etxean izateko itxaropenaren ukazioa. Eta, hirugarren zigorra, urruntasunaren ondorioz, haur-nerabeek egin behar dituzten milaka kilometroak dira. Izan ere, 113 ume-nerabe hauek, asteburuetan parkean edo lagunekin jolasean egon beharrean, furgoneta,

kotxe edo autobus bateko aulkiari itsatsita egoten baitira.

Ikerketak mahaigaineratzen duen beste errealitate bat honakoa da: gaur egun gurasoa(k) espetxean duten 113 haur-nerabeen gehiengoak ETA-ren jardun armatuaren ostean edo aurreko urte hurbiletan jaioa da. Alegia, haur-nerabe hauen gehiengoak, % 59ak gutxienez, ez du ETArek jardunari buruzko inolako bizipen eta oroitzapenik. Aitzitik, duela 6 urtetik hona testuinguru politiko-soziala aldatu bada ere, haur hauen egunerokoak sufrimenduz beterik darrai; egunerokoan aita-amarren gabezia fisiko eta emozionalari egin behar baitiete aurre.

Finean, ikerketa honetatik ondorioztatzen den beste datu bat hauxe da: haur-nerabe hauek babes sozial eta familiar garrantzitsua badute ere, inork ezin du euren aita eta amen hutsunea bete. Hau da, haur hauen kasuan, aiton-amonen, izeba-osaben, nahiz beraien inguruaren sostengua ohikoak badira ere, euren amek eta aitek bete ezin dezaketen hutsunea nabarmena da eurengan. Eta, hutsune hori, ezin du beraiek ez diren beste inork bete. Ez dira inolaz ere ordezkagarriak.

Horregatik guztiagatik, eta ikerketaren datuak kontuan hartuz, zera adierazi nahi dugu: 113 haur eta nerabeek ORAIN behar dituzte gurasoak ondoan; ez 20, 30 edo 40 urte barru, egungo kartzela politikak agintzen duen bezala. Gainera, kartzela politika hau mantenduz gero, haur eta nerabeengan oso ondorio larri eta lazgarriak izango ditu euren etorkizunean nahiz garapenean.


Egoera honi irtenbidea bilatu asmoz, SARE-k premiazko hainbat neurri proposatzen ditu:

113 haur-nerabeon gurasoei lege arrunta aplikatzen hastea. Neurri horrek euren gurasoekin denbora gehiagoz egotea ahalbidetuko luke, ondorioz, ama-aitaren

gabeziak eurengan duen eragina leundu eta, kasu askotan erabat gainditu egingo litzateke.

Ohiko legearen aplikazioak berehalako ondorio hauek izango lituzke:

- Gurasoen %33ak zigorraren 3/4ak beteak dituenez, automatikoki euren seme-ala-bekin etxean beharko lukete gaur bertan, beste edozein arrazoiengatik kartzelan dauden guraso guztiak bezalaxe.
- Epaiturik dauden gainerako gurasoentzat 3. gradua erabat aplikagarria da, legeak dioen bezala, askatasun mugatuan bizitzeko gaituak baitaude.



Gurasoen %12ak zigorraren 1/4^a beteta
Gurasoen %40,9ak zigorraren 1/2^a Beteta
Gurasoen %33ak 3/4ak beteta
Epaitu gabeak %6
Besteak %7ak

Egungo espainiar zein frantziar lege arruntarekin gurasoen %94a etxera itzuli ahalko litzateke euren seme-alabekin etxera. Baina Sarek hausnarketa sakonagoa egin nahi du gaurkoan.

Batetik, ezinbestekotzat jotzen dugu egungo testuinguruari egokituriko kartzela politika malguagoa eta gizatiarragoa. Egun ez dago gurasook kartzelan mantentzeko arrazoirik, berau ezin baita birgizarteratzea izan, kartzelak euren inguru sozial eta familiarretik urruntzen dituen neurrian, ez eta berrerortzea ere, egungo testuinguruan ez baitago horretarako baldintza eta aukerarik. Horregatik guztiagatik, gaur egun, ume hauen gurasoak espetxean mantentzea zentzugabekeria dela azpimarratu nahi dugu.

Iraganean presoen seme-alabak helburu politikoetarako erabiliak izan dira, eta gaur egun, oraindik ere, erabiliak izaten jarraitzen dute. Haurrak gure komunitateko zatirik zaugarriena osatzen dute, ezin dugu gaur egungo espetxe politika gizagabea euregana heda dadin jarraitzen utzi.

Bigarrenik, umeen eskubideak lehenetsiko dituen jendartearen premiaz hausnarrarazi nahi dugu. Bestelako interesen gainetik, haurren premiei lehentasuna emango dien jendartea behar dugu. Haur guztiek euren gurasoen ondoan hezteko duten eskubideaz hausnarrarazi nahi dugu jendartea. Francesco Tonucci psikologo ikerlariak dion moduan hurrek eskubideak dituzte, eta helduek euren eskubideak betetzeko betebeharra.

Bibliografia

Declaración Universal de Derechos Humanos. ONU, 1948.

Declaración de los Derechos de la Niñez. ONU, 1959

Convención sobre los Derechos de la Niñez. ONU, 1989

Reglas de las Naciones Unidas para la protección de los menores privados de libertad, adoptadas por la Asamblea General en su resolución 45/113, de 14 de diciembre de 1990.

Carta Europea de los Derechos del Niño. (DOCE N° C241, 21 setiembre 1992).

Convención sobre el Contacto, relativo a la infancia. Consejo de Europa, Estrasburgo, 15 de mayo de 2003. European Treaty Series, 192.

Manual sobre Legislación Europea referida a los derechos de la Infancia. Agencia para los Derechos Fundamentales, fra.europa.eu; Web del Consejo de Europa: www.coe.int/children; y documentación sobre casos del Tribunal Europeo de Derechos Humanos, echr.coe.int.

Caso de Horych contra Polonia. Tribunal Europeo de Derechos Humanos. 13621/08. Sentencia del 17 de julio de 2012.

Convictos colaterales: niños y niñas de progenitores presos. Quaker United Nations Office, agosto de 2012.

La niñez también necesita de su papá: hijos e hijas de padres encarcelados. Quaker United Nations Office, setiembre de 2008.

Biblioteca sobre hijos de padres encarcelados. Centro Nacional de Recursos para hijos y familias de personas encarceladas de la Rutgers University Camden. www.nrccfi.camden.rutgers.edu

Primera infancia tras las rejas ¿víctimas silenciosas del encarcelamiento? Claudia Jimena Sánchez Barrera, Bogotá, Diciembre de 2015. Contiene abundante bibliografía y referencias.

Niños y madres en prisión. Jesús Giménez Morago, Jesús Palacios González. Ministerio del Interior y Ministerio de Trabajo y Asuntos Sociales de España.

BUVA SOEN
ONDOAN BIZI
NAHIDUT

